



Kaixo, lagunok:

Bagatoz bueltan, aurten gainera **ERABERRITUTA** gatoz. Ikasturte hau **sorpresa eta ekintzaz beterik** egongo da, Alai Batza berritu bat izango dugu eta aparteko begirale taldeak lagunduko dizue kurtso osoan zehar.



Alai Batzak ikasturte berria aurkeztu nahi dizue eta aurtengo izen-ematea nola izango den azaldu. Gainera, aurten, nobedade bezala, guraso bilera bat izango dugu urteko egutegia eta hainbat informazio emateko.

LH4koak **larunbatetan** etorriko zarete **16:30tatik 20:00tara**. Tarte horretan, jolasak, tailerrak, ekintza bereziak egingo ditugu eta primeran pasatuko dugu guztiok batera. **AB Koruan** ere abestu ahalko duzue.



Noiz hasiko gara?

- **URRIAREN 19an ALAI BATZA.**  
Bertan Alai batzako kamiseta eta txartela banatuko zaizkizue.  
Alai Batzari hasiera emango diogu irteera txiki bat eginez.

**GURASO BILERA: URRIAREN 16an, 19:30etan, On Bosko aretoan**

#### **IZEN-EMATEA**

Aurten **izen-ematea online** egingo da [www.alaiatza.com](http://www.alaiatza.com) helbidearen bitartez. Lehenbizi, **urte osorako kuota ordaindu** behar duzue. Horretarako, 25€ (kamiseta barne) sartu beharko dituzue gure kontu korrontean:

**Euskadiko Kutxa ES57 3035 0031 77 0311063370.**

(Mesedez, dirua sartzean parte-hartzailearen izena eta maila jarri kontzeptu gisa.)

Bigarren pausua, Alai Batzako web-orrian sartu eta bertan dagoen **formularioa betetzea** izango da. Bertan txertatu beharko duzue ordainketaren agiria. Izen-ematea **URRIAK 14 baino lehenago** egin beharko da.

Norbaitek izen-ematearekin arazorik edo zalantzarik izango balu, **URRIAREN 1ean, 2an eta 3an (9:00-10:00 / 17:30-18:30)** Alai Batzako begiraleak Koldoren bulegoan egongo gara zuei laguntzeko eta zalantza guztiak argitzeko. Bestela, lasai idatzi [alaiatza@alaiatza.com](mailto:alaiatza@alaiatza.com) helbidera edota deitu 623 18 03 88 telefonora.

Zuen atenzioa eta konfiantza eskertuz eta laster ikusiko garelakoan,

Agur bero bat,

**ALAI BATZAKO BEGIRALEAK**